

# Beilatokia leku egokian. **Posible da!**

Berako Udala  
Bera - Nafarroa

Beran, 2014ko irailaren 4a

Jaun/Andere agurgarriak:

Zuekin berriro harremanetan jartzen gara, azken idatzitik anitz aldatu ez diren gure eskakizunak aurkezteko.

Lehendabizi, lehenbailehen herriko ordenantzak aldatzea, beilatokiaren kokapenari buruzkoak hain zuen ere, etxebizitzaren eraikinetik kanpo, aparteko leku batean eta herri barrenean. Eskaera hau indartzeko zortziehun sinadura baino gehiago aurkezten ditugu.

Berako bizilagunekin egon eta gero, beilatokia udalekutearen eskaerak indarra hartu du, beharrezko ondasuna delako, denontzat, aparteko leku batean, inguru lasai eta egoki batean.

Azkenik, ez dugu aukera hau alferrik galdu nahi udala osatzen duten alderdi politikoekin bilera bat eskatzeko, denek elkarrekin posible balitz, edo bereizirik.

Aldez aurretik zuen arreta eskertuz, hartu gure agurrik beroena,

ITURLANDETAKO BIZILAGUNAK

ERANSTEN DITUGU: Sinaduren orrialdeak